

Gazteak eta sare sozialak

Euskadiko gazteen erabilera-ohiturak 2023an



- ❖ Ikerketaren fitxa teknikoa
- ❖ Euskadiko gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak
- ❖ Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzea
- ❖ Youtuber, influencer eta gamerrei jarraitzea
- ❖ Interneten edukiak sortzea
- ❖ Sare sozialetan erabilitako hizkuntzak
- ❖ Sare sozialetan jazarpena bizi izatea
- ❖ Sare sozialetan jazarpen sexuala bizi izatea
- ❖ E-mailtzarrik aipagarrienak

❖ Metodologia: kuantitatiboa, inkesten bidez

- ☐ **Unibertsoa:** Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
- ☐ **Lagina:** 1.701 gazte
- ☐ **Informazioa biltzeko prozedura:** online, eta inkesta egiteko inkestarako esteka bidali zitzaion Euskadiko gazteen lagin bati
- ☐ **Galdetegia:** egituratua, norberak bete ahal izateko
- ☐ **Landa lanaren datak:** 2023ko azaroaren 6tik 30era artean
- ☐ **Lagin errorea:** $\pm \% 2,4$ (konfiantza maila $\% 95,5$ eta, teoriarik, $p=q=0,50$ izanik)
- ☐ **Ikerketa diseinatzea eta emaitzak aztertzea:** Gazteen Euskal Behatokia
- ☐ **Inkesten bilketaren eta datubasea sortzearen kudeaketa:** Ingartek Consulting S.L.


EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

I. Erabileraren maiztasuna



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak? (%)




Instagram eta musika entzuteko sare sozialak dira Euskadiko gazteek egunero gehien erabiltzen dituztenak.

Oso gazte gutxik aitortu dute ligatzeko sareak (Tinder, Meetic, Grinder...) erabiltzen dituztela.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

II. Eguneroko erabileraren bilakaera

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)




* Ez dago sare sozial horiei buruzko daturik aztertutako urte guztietan. Gainera, 2021ean Spotify-ri buruz bakarrik galdetu zen eta ez ziren kontuan hartu musika entzuteko beste sare sozialak. Bestalde, 2023an lehen aldiz galdetu da zehazki BeReal-i buruz (2022an modu espontaneoan aipatu zen).

Nabarmen jaitsi da Youtube, Facebook eta Twitch sareen eguneroko erabilera eta handitu da TikTok eta BeReal sareena.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

III. Sexuaren araberako aldeak eguneroko erabileran


*Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)*



Emakumeen artean gizonen artean baino ohikoagoa da Instagram, TikTok, BeReal, Snapchat eta musika entzuteko sare sozialak erabiltzea; gizonak emakumeak baino neurri handiagoan erabiltzen dituzte Youtube, X eta Twitch. Edozelan ere, Instagram eta musika entzuteko sare sozialak dira bi taldeek eguneroko gehien erabiltzen dituztenak.


EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

IV. Emakume gazteen eguneroko erabileraren bilakaera



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)




* Ez dago sare sozial horiei buruzko daturik aztertutako urte guztietan. Gainera, 2021ean Spotify-ri buruz bakarrik galdetu zen eta ez ziren kontuan hartu musika entzuteko beste sare sozialak. Bestalde, 2023an lehen aldiz galdetu da zehazki BeReal-i buruz (2022an modu espontaneoan aipatu zen).

Emakumeen artean Instagram izan da urte hauetan guztietan egunero gehien erabili izan den sare soziala.

Egunero Facebook eta Youtube erabiltzen zutenen ehunekoaren jaitsiera eta, aitzitik, TikTok eta BeReal erabiltzen dutenen ehunekoaren igoera nabarmenagoak dira emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino.


EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

V. Gizon gazteen eguneroko erabileraren bilakaera



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)




* Ez dago sare sozial horiei buruzko daturik aztertutako urte guztietan. Gainera, 2021ean Spotify-ri buruz bakarrik galdetu zen eta ez ziren kontuan hartu musika entzuteko beste sare sozialak. Bestalde, 2023an lehen aldiz galdetu da zehazki BeReal-i buruz (2022an modu espontaneoan aipatu zen).

2023an, lehenengo aldiz, egunero Instagram eta musika entzuteko sare sozialak erabiltzen dituztenen ehunekoa Youtube erabiltzen dutenena baino handiagoa da gizon gazteen artean. Bestalde, Twitch-en jaitsiera nabarmena da.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

VI. Adinaren arabera aldeak eguneroko erabileran

*Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)*




Instagram eta musika entzuteko sare sozialak dira gehien erabiltzen direnak adin-talde guztietan.

15 eta 19 urte bitarteko hamar gaztetik seik TikTok erabiltzen dute egunero. Halaber, 20 urtetik beherakoak dira BeReal eta Snapchat egunero gehien erabiltzen dituztenak. Aitzitik, 25 eta 29 urte bitartekoak dira Facebook, enplegua bilatzeko sareak (LinkedIn, Infojobs, etab.) eta ligatzekoak (Tinder, Meetic...) gehien erabiltzen dituztenak.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

VII. 15-19 urteko gazteen eguneroko erabileraren bilakaera

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)




* Ez dago sare sozial horiei buruzko daturik aztertutako urte guztietan. Gainera, 2021ean Spotify-ri buruz bakarrik galdetu zen eta ez ziren kontuan hartu musika entzuteko beste sare sozialak. Bestalde, 2023an lehen aldiz galdetu da zehazki BeReal-i buruz (2022an modu espontaneoan aipatu zen).

15 eta 19 urte bitartekoen artean nabarmena da TikTok eta BeReal egunero erabiltzen dutenen igoera eta aldiz Youtube eta Twitch, batez ere, baina baita Snapchat eta Instagram ere erabiltzen dutenen jaitsiera.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

VIII. 20-24 urteko gazteen eguneroko erabileraren bilakaera

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)




* Ez dago sare sozial horiei buruzko daturik aztertutako urte guztietan. Gainera, 2021ean Spotify-ri buruz bakarrik galdetu zen eta ez ziren kontuan hartu musika entzuteko beste sare sozialak. Bestalde, 2023an lehen aldiz galdetu da zehazki BeReal-i buruz (2022an modu espontaneoan aipatu zen).

Instagram eta musika entzuteko sare sozialak dira 20 eta 24 urte bitarteko gazteek gehien erabiltzen dituztenak 2022an eta 2023an. Gainera, talde honetan ere handitu egin da TikTok eta BeReal sareen eguneroko erabilera eta jaitsi da beste sare sozialen erabilera, batez ere Facebook-ena.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

IX. 25-29 urteko gazteen eguneroko erabileraren bilakaera

Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)



* Ez dago sare sozial horiei buruzko daturik aztertutako urte guztietan. Gainera, 2021ean Spotify-ri buruz bakarrik galdetu zen eta ez ziren kontuan hartu musika entzuteko beste sare sozialak. Bestalde, 2023an lehen aldiz galdetu da zehazki BeReal-i buruz (2022an modu espontaneoan aipatu zen).

25 eta 29 urte bitartekoen artean beste adin-taldeetan baino gehiago jaitsi da Facebook-en eguneroko erabilera. Twitter-en erabilera ere jaitsi egin da adin-talde honetan, X izatera aldatzearekin batera. Enplegua bilatzeko sare sozialen eguneroko erabilera ere jaitsi da 2021etik hona. Talde honetan oso gutxik erabiltzen dute BeReal.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

X. Eguneroko erabileraren aldeak, sexu eta adin-talde konbinatuen arabera



*Zenbatero erabiltzen dituzu ondoko sare sozialak?
(egunero erabiltzen dutenen %)*

<i>(egunero sare sozial bakoitza erabiltzen dutenen %)</i>	Emakumeak			Gizonak		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Instagram	86,5	84,1	84,1	71,0	83,3	67,0
Spotify, AppleMusic edo musika entzuteko beste batzuk	83,9	81,4	65,5	73,8	80,9	62,8
Youtube	27,6	38,7	36,0	69,0	71,7	66,9
TikTok	71,5	47,4	29,9	51,2	32,2	19,3
X (lehen Twitter izandakoa)	15,9	31,5	25,3	20,2	44,9	42,8
BeReal	53,8	29,4	4,7	26,9	15,5	4,1
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko beste batzuk	1,0	16,4	24,9	2,7	14,9	15,9
Facebook	0,5	5,7	20,5	2,1	5,8	15,6
Snapchat	16,5	5,2	0,2	2,4	2,0	0,3
Twitch	2,1	1,9	1,0	5,1	10,3	4,4
Tinder, Meetic, Grinder, Badoo edo ligatzeko beste batzuk	0,0	0,0	0,0	1,4	5,2	8,9
Bestelakoak (Discord, Pinterest, Reddit, Strava, Wattpad...)	1,8	1,7	2,0	4,4	2,2	0,9

15 eta 19 urte bitarteko emakumeak dira egunero TikTok, BeReal eta Snapchat gehien erabiltzen dituztenak.

Adin-talde guztietako gizon gehienek egunero erabiltzen dute Youtube, baina emakumeen artean, adin-talde bakar batean ere ez dira gehiengo osatzera iristen egunero sare sozial hau erabiltzen dutenak.

X (lehen Twitter izan zen sare soziala) gehiago erabiltzen dute 20 eta 29 urte bitarteko gizonak eta Twitch 20 eta 24 urte bitarteko gizonak. 25 eta 29 urte bitarteko gizonak dira ligatzeko sare sozialak (Tinder, Meetic, Grinder, etab.) egunero erabiltzen dituztela neurri handienez aitortzen dutenak.

Facebook eta lana bilatzeko sare sozialak gehien erabiltzen dituztenak 25 eta 29 urte bitarteko emakumeak dira.

EUSKADIKO GAZTEEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN SARE SOZIALAK

XI. Egunero gehien erabiltzen diren hamar sare sozialen hurrenkera, sexu eta adin-talde konbinatu bakoitzeko erabiltzaile kopuruaren arabera

Emakumeak			Gizonak		
15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29


Instagram hurrenkeraren lehen postuan dago talde guztietan 15 eta 19 urte bitarteko gizonen artean izan ezik; azken talde horretan bigarren postuan dago, musika entzuteko sare sozialen atzetik.

Sare sozial berberak errepikatzen dira, hurrenkera batean edo bestean, ia talde guztietan, Snapchat izan ezik. Snapchat ez dago 20 eta 29 urte bitarteko gizonen gehien erabiltzen dituzten hamar sareen artean eta, bere ordean, Tinder, Meetic, Grinder eta antzekoak daude.

EGUNERO HIRU SARE SOZIAL EDO GEHIAGO ERABILTZEA

I. Bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

Sare sozial bakoitzaren eguneroko erabileratik abiatuta, egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten gazteen ehunekoa kalkulatu da.




Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituztenen ehunekoa ia bikoiztu zen 2018tik 2022ra eta 2023an gora egiten jarraitu du eta % 72ra iritsi da.

Urte hauetako igoera erregularragoa izan da 25 eta 29 urte bitartekoen artean beste taldeetan baino, baina nagusiagoen talde horretan ez dira 15 eta 24 urte bitartekoen artean jasotako ehunekoetara iristen.

EGUNERO HIRU SARE SOZIAL EDO GEHIAGO ERABILTZEA

II. Aldeak, sexu eta adin-talde konbinatuen arabera

Sare sozial bakoitzaren eguneroko erabileratik abiatuta, egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten gazteen ehunekoa kalkulatu da.




Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekorik handiena 15 eta 19 urte bitarteko emakumeei dagokie, horien artean % 80,3 baita.

YOUTUBER, INFLUENCER ETA GAMERREI JARRAITZEA

I. Bilakaera

Youtuber, influencer edo gamerren bati jarraitzen diozu? (%)




2023an hamar gaztetik seik youtuber, gamer edo influencerren bati jarraitzen diote (% 61,7).

Inoiz youtuber edo influencer bati jarraitu ez dioten gazteen ehunekoa jaitsi egin da urteek aurrera egin ahala (2018ko % 38,7tik 2023ko % 17,5era).

YOUTUBER, INFLUENCER ETA GAMERREI JARRAITZEA

II. Bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

*Youtuber, influencer edo gamerren bati jarraitzen diozu?
(urte bakoitzeko jarraitzaileen %)*




15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira youtuber, gamer edo influencerrei neurri handiengan jarraitzen dietenak. Edukien sortzaile mota hauei jarraitzen dietenen ehunekoa jaisten da adinean gora egin ahala.

2021eko datuekin konparatuz gero (orduan erregistratu ziren zifrarik altuenak eta), ikus dezakegu youtuber, influencer edo gamerrei jarraitzen dieten gazteen ehunekoak bakarrik 25 eta 29 urte bitartekoen taldean egin duela gora.

YOUTUBER, INFLUENCER ETA GAMERREI JARRAITZEA

III. Jarraipenaren aldeak, sexu eta adin-talde konbinatuen arabera

Youtuber, influencer edo gamerren bati jarraitzen diozu? (%)




15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira youtuber, gamer edo influencerrei neurri handienez jarraitzen dietenak.

Egungo jarraitzaileei bakarrik erreparatuz gero, ikusiko dugu 15 eta 19 urte bitarteko emakumeek osatzen dutela influencerrei gehien jarraitzen dieten bigarren taldea, baina orain edota lehen jarraitu izan dutenak kontuan hartzen baditugu, bigarren talde hori 20 eta 24 urte bitarteko gizonena izango litzateke.

INTERNETEN EDUKIAK SORTZEA

I. Bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

Eta zu Interneteko edukien sortzailea zara, adibidez, Youtuberreko kanalen bidez, Instagramen, Twitchen, TikTok-en, blogetan...? (%)



Hamar gaztetik bat edukien sortzailea da gaur egun (% 9,5, 2023an).


15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira aktiboenak edukiak sortzeari dagokionez (% 12,7, 2023an).

Edukiak sortzen dituztenen ehunekoak pixka bat jaitsi dira 2022tik 2023ra, batez ere 20 eta 24 urte bitartekoen artean (eta, zehazkiago, adin-talde horretako gizonen artean).

INTERNETEN EDUKIAK SORTZEA

II. Aldeak, sexu eta adin-talde konbinatuen arabera

Eta zu Interneteko edukien sortzailea zara, adibidez, Youtuberreko kanalen bidez, Instagramen, Twitchen, TikTok-en, blogetan...? (%)



Interneten edukiak sortzeari dagokionez, 15 eta 19 urte bitarteko gizonak dira aktiboenak (% 15,9).

Bestalde, badago erlazio zuzena youtuber edo influencer bati jarraitzearen eta norbera edukien sortzailea izatearen artean: inoiz inor jarraitu ez dutenen artean edukiak sortzen dituztenen ehunekoa % 3,0 baino ez da.

INTERNETEN EDUKIAK SORTZEA

III. Sortutako eduki mota

Zer motatako edukiak sortzen dituzu?

(gaur egun edukiak sortzen dituztenen artean, eduki mota bakoitzaren %)



Euskadiko gazteek Interneten gehien sortzen dituzten edukiak argazkiak dira edo bideojokoekin edo bizimoduarekin lotuta daude.


Edukiak sortzen dituen talde handi batek ez du zehaztu zelako eduki mota sortzen duen.

INTERNETEN EDUKIAK SORTZEA

IV. Emakume eta gizon gazteek sortzen dituzten eduki motak

Zer motatako edukiak sortzen dituzu?

(gaur egun edukiak sortzen dituztenen artean, eduki mota bakoitzaren %)




Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan sortzen dituzte bizimoduarekin, bidaiekin, artearekin, literaturarekin edota eskulanekin lotutako edukiak.

Gizon gazteek batez ere bideojokeekin lotutako edukiak igoten dituzte (eta hori ez da emakumeen artean gertatzen) eta emakumeek baino gehiago egiten dituzte umorezko bideoak.

SARE SOZIALETAN ERABILITAKO HIZKUNTZAK

I. Hizkuntza bakoitzaren erabileraren bilakaera

*Zer hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan?** (%)



* Pertsona bakoitzak erabiltzen dituen hizkuntza guztiak aipatu ditu

Ia gazte guztiek gaztelania erabiltzen dute. Eta gehiago dira sare sozialetan ingelesa erabiltzen duten gazteak euskara erabiltzen dutenak baino (% 62,4 eta % 40,7, hurrenez hurren, 2023an).

2022tik 2023ra handitu egin da sare sozialetan euskara erabiltzen duten gazteen ehunekoa, baina nabarmenagoa izan da ingelesa eta Euskadin ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituztenen ehunekoaren hazkundera. Beste hizkuntza horien artean gehien erabiltzen dena frantsesa da eta gazteen % 5,0k sareetan erabiltzen du. Gainera, % 2,3k alemana erabiltzen du, % 2,2k katalana eta % 1,2k italiara. Beste hizkuntza bakoitza gazteen % 1ek baino gutxiagok erabiltzen du.

SARE SOZIALETAN ERABILITAKO HIZKUNTZAK

II. Hizkuntza bakoitzaren erabilera sexuaren, adinaren, bizilekuaren eta jaiolekuaren arabera

*Zer hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan?** (%)

(hizkuntza bakoitza erabiltzen dutenen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Bizilekua				Jaiolekua	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskaditik kanpo	Euskadi	Atzerria
Gaztelania	97,9	98,4	97,5	98,2	98,5	97,1	98,8	99,1	96,0	96,9	97,9	98,5
Ingelesa	62,4	60,4	64,2	61,3	68,1	57,5	59,5	60,4	63,4	76,6	63,0	57,7
Euskara	40,7	42,6	38,8	34,7	46,7	40,8	32,0	34,9	52,9	40,9	43,9	16,3
Beste hizkuntza batzuk	13,1	13,2	13,0	13,2	13,5	12,6	12,1	11,5	14,7	18,6	11,4	27,7

**Pertsona bakoitzak erabiltzen dituen hizkuntza guztiak aipatu ditu*

Gipuzkoako gazte gehienek euskara erabiltzen dute sare sozialetan (% 52,9k); Araban edo Bizkaian heren batek inguru erabiltzen du euskara (% 32,0k eta % 34,9k, hurrenez hurren).

15 eta 19 urte bitarteko gazteek 20 eta 29 urte bitartekoek baino gutxiago erabiltzen dute euskara sare sozialetan.

Emakumeek gizonek baino gehixeago erabiltzen dute euskara, baina gizonek baino gutxixeago ingelesa.

Atzerrian jaioetako gazteen artean, % 16,3k euskara erabiltzen du sare sozialetan. Eta laurden batek baino gehixeagok (% 27,7) proposatu ez diren beste hizkuntza batzuk erabiltzen ditu, batez ere frantsesa (% 6,5), alemana (% 5,6) eta arabiera (% 4,8).

Euskaditik kanpo bizi diren gazteak dira ingelesa gehien erabiltzen dutenak.

SARE SOZIALETAN ERABILITAKO HIZKUNTZAK

III. Hizkuntza bakoitzaren erabilera, sexu eta adin-talde konbinatuen arabera

*Zer hizkuntza erabiltzen dituzu normalean sare sozialetan?** (%)

(hizkuntza bakoitza erabiltzen dutenen %)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	99,7	98,0	97,3	96,8	98,9	96,9
Ingelesa	59,5	67,4	54,1	62,9	68,8	60,7
Euskara	38,7	49,3	39,9	31,0	44,2	41,8
Beste hizkuntza batzuk	13,4	15,2	10,9	13,0	11,8	14,3

**Pertsona bakoitzak erabiltzen dituen hizkuntza guztiak aipatu ditu*

25 urte izan arte, emakumeek beren adineko gizonek baino gehiago erabiltzen dute euskara sare sozialetan, baina 25 eta 29 urte bitartean gizonek emakumeek baino gehixeago erabiltzen dute.


Ingelesa erabiltzen duten gizonen ehunekoa emakumeei dagokiena baino handiagoa da adin-talde guztietan.

20 eta 24 urte bitarteko emakumeak dira proposatu ez diren hizkuntzak gehien erabiltzen dituztenak; talde honetan frantsesaren erabilera batez bestekoaren gainetik dago (% 7,4).

SARE SOZIALETAN JAZARPENA BIZI IZATEA

I. Bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

Inoiz sentitu duzu pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzeko zintuztela, etengabe mezuak bidaltzen, iruzkin desatseginak bidaltzen, iraintzen, mehatxatzen edo horrelakorik egiten? (%)



Hamar gaztetik hiru (% 29,3) jazarriak sentitu dira noizbait sare sozialetan. Ehuneko hori egonkortu egin da 2023an, azken urteetan izandako goranzko joeraren ondoren. Bakarrik 15 eta 19 urte bitartekoen artean egin du gora 2023an.


Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan diote jazarpen-egoeraren bat bizi izan dutela sare sozialetan (% 36,3 eta % 22,6, hurrenez hurren, 2023an).

Gainera, Interneten edukiak sortzen dituztenek edo sortu izan dituztenek inoiz edukirik igo ez dutenek baino neurri handiagoan adierazi dute jazarriak sentitu izan direla noizbat sare sozialetan (sortzaileen % 45,1 eta inoiz sortu ez dutenen % 26,1).

SARE SOZIALETAN JAZARPENA BIZI IZATEA

II. Aldeak, sexu eta adin-talde konbinatuen arabera

Inoiz sentitu duzu pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzen zintuztela, etengabe mezuak bidaltzen, iruzkin desatseginak bidaltzen, iraintzen, mehatxatzen edo horrelakorik egiten? (%)




Sare sozialetan jazarpen-egoeraren bat bizi izan duten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da adin-talde guztietan.

Alderik handiena 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen eta gizonen artekoa da (adin horretako emakumeen % 39,4k eta gizonen % 19,9k bizi izan dute ziberjazarpen-egoeraren bat).

SARE SOZIALETAN JAZARPEN SEXUALA BIZI IZATEA

I. Datu orokorrak, sexuaren eta adinaren arabera

Kasu horietakoren batean, jasan duzun jazarpena sexuala al zen? (%)



Gazteen % 15,3k adierazi du noizbait jazarpen sexualaren egoeraren bat bizi izan duela sare sozialetan.

Sare sozialetan jazarpen sexuala bizi izan duten emakume gazteen ehunekoak hirukoizten du horrelako gertakariren bat bizi izan duten gizon gazteen ehunekoa (% 23,8 eta % 7,4, hurrenez hurren).

Bakarrik emakumeen kasuan eman daitezke adinaren arabeko datu esanguratsuak eta horietan ikusten da 20 eta 24 urte bitarteko emakumeak direla sare sozialetan jazarpen sexualaren egoerak gehien bizi izan dutenak: % 26,3 talde horretan, % 21,4 gazteenen artean (15-19) eta % 23,9 nagusien artean (25-29).

Azkenik, Interneten edukiak sortzen dituztenek edo sortu izan dituztenek inoiz edukirik igo ez dutenek baino neurri handiagoan bizi izan dituzte jazarpen sexualaren egoerak (sortzaileen % 22,2k eta sortzaileak ez diren % 14,0k).

EMAITZARIK AIPAGARRIENAK (I)

- Instagram da Euskadiko gazteek egunero gehien erabiltzen duten sare soziala (% 79,2), batez ere emakumeek (% 84,9).
- TikTok eta BeReal dira azken urteetan gazteen artean eguneroko erabileran hazkunderik handiena izan duten sare sozialak; 15 eta 19 emakume gehienek egunero erabiltzen dituzte.
- Aitzitik, jaitsi egin da egunero Youtube, X (lehen Twitter izandakoa), Snapchat, Twicht eta, batez ere, Facebook erabiltzen dutenen ehunekoa. Enplegua bilatzeko sare sozialak ere 2021ean baino gutxiago erabiltzen dira orain.
- Aurreko urteetan bezala, oso gazte gutxik aitortzen dute ligatzeko sare sozialak (Tinder, Meetic, Grinder, etab.) erabiltzen dituztela.
- Edozelan ere, igo egin da egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituztenen ehunekoa (% 72, 2023an).
- Gazteen % 61,7k youtuber, influencer edo gamerren bati jarraitzen diote. Ehunekorik altuena 15 eta 19 urte bitarteko gizonei dagokie (% 70).

- Hamar gaztetik batek edukiak sortzen ditu Interneten gaur egun (% 9,5). Eduki horiek, batez ere, argazkiak izaten dira edo bideojokoekin lotuta daude (gizon sortzaileen artean) edo, bestela, bizimoduarekin lotuta daude (azken hauek ohikoenak dira emakume sortzaileen artean). Edukiak sortzen talde aktiboena 15 eta 19 urte bitarteko gizonena da.
- Ia gazte guztiek gaztelania erabiltzen dute sare sozialetan (% 97,9). Gehienek ingelesa ere erabiltzen dute (% 62,4). Eta hamar gaztetik lauk euskara erabiltzen dute (% 40,7). Gazteen % 13,1ek beste hizkuntzaren bat erabiltzen dute, batez ere atzerrian jaiotakoek. 2022tik 2023ra handitu egin da hizkuntza guztien erabilera, baina batez ere ingelesarena.
- Gipuzkoako gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 52,9), eta alde nabarmena dago Arabako (% 32,0) eta Bizkaiko (% 34,9) gazteen erabilera-ehunekoekin konparatuz gero. Atzerrian jaiotako gazteen % 16,3k dio sare sozialetan euskara erabiltzen duela.
- Euskaditik kanpo bizi diren gazteak dira ingelesa gehien erabiltzen dutenak.

EMAITZARIK AIPAGARRIENAK (III)

- Gazteen % 29,3 noizbait jazarria sentitu da sare sozialetan pertsona batek edo batzuek etengabe mezuak bidaltzen zizkiotelako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkiotelako, iraintzen zutelako, mehatxatzen zutelako edo horrelako zerbait egiten ziotelako. Ehuneko hori handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 36,3 eta % 22,6, hurrenez hurren, 2023an). Ohar positibo gisa esan daiteke 2022tik 2023ra behera egin duela apur bat sare sozialetan noizbait jazarriak sentitu diren gazteen ehunekoak, 2018tik 2022ra izandako goranzko joera hautsiz.
- Gazteen % 15,3k dio, noizbait, sare sozialetan bizi izandako jazarpena sexuala izan dela. Ziberjazarpen sexualaren egoeraren bat bizi izan duten emakume eta gizon gazteen arteko aldeak oso deigarriak dira (emakumeen % 23,8 eta gizonen % 7,4).
- Interneten edukiak sortzen dituztenek edo sortu izan dituztenek inoiz edukirik igo ez dutenek baino neurri handiagoan bizi izan dituzte jazarpen egoerak eta, zehazkiago, jazarpen sexualaren gertakariak sare sozialetan.

